



Lana / La obra

Piztutako etxea nire lanik sakonena da. Gogoeta egiten dut, esperantzaz, izuaz, desiraz, maitasunaz eta pasioaz, besteak beste. Abiapuntua da bizitzak bere arauak dauzkala eta, seguru asko, ez ditugula sekula santan guztiak ezagutuko, bizi garen bitartean bizitzaz ez beste ezertaz arduratzen garelako. Baina beste ezer hori bizitzaren muina ere izan daiteke, jakin gabe, noski. Gizakia zerk bultzatzen duen bizitzera da jakin beharrekoa. Baina beti ez dago gizakiaren esku halako jakituria. Ez zaio argirik iristen bere barreneko so-toan gordeta dagoena ikusteko. Beraz, bizi da gizakia, besterik gabe. Eta ez da gutxi. Izan ere, gizakia handia da, izakietan handiena. Baina inork gutxik daki hori.

Felipe Juaristi

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Piztutako etxea**
Egilea / Autor: **Felipe Juaristi**
Saila / Colección: Poesia, 25
ISBN / EAN: 978-84-9746-894-7
Salneurria / Precio: 10 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / N° páginas: 72
Formatua / Formato: 13 x 20,5 cm

Egilea / El autor

Felipe Juaristi Galdos, Azkoitian jaioa da, 1957an. Kazetaritza ikasketak egin zituen Madrilan, eta lanbide horretan aritu da, euskaraz zein gaztelaniaz, hainbat lekutan: Literatur Gazeta eta Porrot aldizkarien sortzaileetakoa da. Poeta gisa da batez ere ezaguna. Juaristiren lehen poema-bilduma *Denbora, nostalgia* (Baroja, 1985) izan zen. Geroztik, *Hiriaren melankolia* (Baroja, 1987), *Laino artean zelatari* (Alberdania, 1993) *Galderen geografia* (Alberdania, 1997), *Begi-ikarak* (Erein, 2004) argitaratu ditu. Hiz-lauzko lanik ere badu: *Intzentsua lurrean bezala* (Baroja, 1988) kontakizuna, *Arinago duk haizea, Absalon* (Erein, 1990) eta *Ez da gaua begietara etortzen* (erein, 2007) eleberririk. Haur eta gazte literaturari ere hainbat liburu eman dizkio: *Tristuraren teoria* (Erein, 1993), *Ilargi-lapurra* (Erein, 1994), *Sagitario* (Descleé de Brouwer, 1995), *Eguzkiaren Etxea* (Alberdania, 1998), *Laura eta Itxaso* (Aizkorri, 1998), *Aduna eta aduanak* (Erein, 2000) eta *Zazpi bider zazpi* (Erein, 2005). Hainbat sari jasotakoa da Felipe Juaristi: 1992ko Lizardi Saria, *Tristuraren teoria* izeneko lanarekin. 1998an Euskadi literatura saria jaso, euskarazko literaturari dagokiona, bere *Galderen geografia* izeneko olerki liburuagatik. Liburu horrek badu dagoeneko gaztelaniazko bertsioa: *Geografía de las Preguntas* (Bassarai, 1999).

ISBN: 978-84-9746-894-7



9 788497 468947

www.erein.com


erein